



Gazterixia afalostian

Argazki kuriosua dala uste dogu gaurkua be. Pentsau eragitten doskuen horreittakua. Larogeta bi urte dako, 1933an ataratakua da-eta: Bigarren Errepublikia hasi eta urte pare bat beranduagokua eta hiru urte geruagoko hondamendixaren aurretikua. Era eta kolore desbardiñetako gazte honein alaittasuna eta aiskidettasuna ikusitta, nor esango laister batian gerriak ekarri eben eten latz eta luzia etorri biharko zanik?

Despedida edo antzeko zerbaiten bateko fotografia dala emuten dau. Giro umoretsuan dagoz gaztiok afalondoren. Atzeko kalian eguen *Goiko Txurrukaneko jatetxian*, gaur eguneko *Galicía* tabernan, egindako ospakizun bat izan leike. Bertan agiri diran dan-danak ezauketia lortu eztogun arren, argazki hau kaleraketia ondo legokiela deritzogu, sasue bateko testigantzia emuteko.

Goitik behera eta ezkerretik eskumara honeik dira gure ustez identifikau dittugunak:

Goiko illaran: Markel Igartua, San Antue kalekua; Maximo Lazkanoiturburu; Santos Irizar, *Auntxolatarra*, estankerua gerora; Pedro Madina, *Txurruka* familixakua, Donostian bizi izan zan geruago; eta Esteban Letamendi, plazako dendakua, gerra ostian Txilera fan zana.

Erdiko illaran: lehenengo bixak ezezagunak oraingoz; Iñazio Astigarraga, *Aleitarrena*, gerran gazterik hil zana; Jabier Urrestarazu, *Itturritxukua*; Maritxu Madina, Pedoren arrebía, plazako *Txurrukaneko* tabernarixa urte askuan Florentina ahizpiarekin batera; Reyes Urtaza, *Kirriñeneko* karnazerua; eta Migel Guridi, *Zumeltzegi* torrekua.

Behoko illaran jarritta: lehenengua Zubillagako Unzurrunzagatarraren bat izan leike; hurrengua ezezaguna oraingoz; eta azkena Joxe Azpiazu pinttoría, gerora Europa osuan kittarrista famaia izango zana.

Badakizue, betiko moduan, zuzenketak eta informaziño barrixak onarketan dittugula. Zuen zain geraketan gara, ba.

J. E.

Fotografia Glorita Irizarrek eskuratu dosku. Agibidiak, berriz, Gloritak berak, Jesus Mari Igartuak, Joxe Mari Urzelaik eta Elena Bengoak. Milla esker danoiri!

Zuzenketak: Garagarril-uztailleko sail honetako zenbakixan erdiko illaran daguen Joxe Luis Ugarte Zulatzara ezkondu zala esaten geben, baiña Olabarrietako baserri horretara ezkonduetakua bere anaia Patxi zan. Bestalde, abenduko alian emakume langillien argazki zaharrian agerketan dan Modesta ezta Aranburu, Gorostidi baiño, Felix Arriaranen alarguna. Eskerrik asko zuzenketa honeikatik Joxe Ramon Arrazola, Amaia Agirre eta Jexux nahiz Felix Errastiri.